

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txararik mugarrora

BASOA EKONOMIA OSOAREN OINARRIA zen garaietan, zuhaitzak arrasean moztu eta berritzean sortutako txara zen hura ustiatzeko era nagusia. Txarak istiluak sortzen zituen: abereek ezin zuten bertan bazkatzu, berritzen ari ziren landareak jango baitzituzten. Hura komeria!

Egurzaleen eta aberezaileen arteko iskanbila epaituz epaitu zen. Epaituz, epetuz, moztuz. Lepoa mozteak askatu zuen buruhaustea. Lepatu, zuhaitzei lepo egiten zitzaien. Lepatu, mugarrotu egiten zen zuhaitza, hiru bat metroa zast moztu. Han goian berrituko da, adar mordo bat emango du. Hainbat urtez behin, adarrok behar dugun tamainakoak egin direnean berriro bertan mugarrotu. Guk egurra eskuratu dugu eta zuhaitza goi horretan berrituko da. Behor lepaluzeenaren zorrortzetatik urruti. Zuhaitzaren ipurdian eta enborrean sortutako altsumak harrapatu eta jango ditu abereak, baina hori ona da, goiko adar berriak indartuko dituen inausketa. Honela sortzen dira zuhaitz motzak, modorroak edo



FLICKR: CMDRGRAVY-CC BY

mugarroak. Basogintza perfektura hurbiltzen den paisaia kulturala, bertako kulturaren ekonomiaren premiak denak asetzera bideratutakoa: abereen bazkatzak, ikazkinen egurrak eta arotzen zurak.

Mugarroak basoan bakarrik ez dira izaten. Katua- ren mugarroen barruko etxe bueltan, hesietan, sailen mugetan, bide ertzean... Nonahi topatuko dituzu mugarrotutako zuhaitzak.

Hauetako gehienei beste etekin bat kendu izan zaie: hostoz jantzita zeudenean adarrak moztu eta hostoak ihartzean jaso: abereentzat negurako bazka. Gaur egun mugarro gehienak hirietako plaza eta kaleetan ikusiko dituzu. Itzala da bere emari onena.

Arazo handi bat du, baina, mugarroak, urtea joan eta urtea etorri toki beretik moztearen mozteaz zuhaitza ahitu egiten da eta enborreko erreserbak galdu. Ondorioz enborra hutsa dute mugarroek. Mozteari utzitakoan adar gero eta handiagoei eutsi behar diete eta jo eta hautsi eta adarrak erortzea ohikoa da. Kontuz beraz, kaleko mugarroen azpian...

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Gure amonak biltzen zuen belar batzuen izena "zain gorri" edo "xaingorri" zen. Ereñotzuko Alkatxuingo Patxik belar horiei bereri ematen dien izena: txangoli belarra. Hortaz, "txakolin" hitza eta "zain gorri" ez ote dira gauza bera? Horretarako, gutxienez, txakolin mahastietako landare, orpo edo zainek inongo gorritasunik baduten jakin beharko genuke. Imanol Lizeaga (Hernani).

Aupa Imanol. Txangoli-belarra ez dut inoiz entzun. *Geranium robertianum* belarrarentzat ezagutzen ditudan izenak hauek dira: lertxun-moko, manda-perrexila, belar-zangogorria, zaingorria eta zangogorria. Zangogorritik txangoli? Posible da. Txakolinaren edo mahastiondoaren zangoa, zaingorriarena bezala gorria da. Gorria zentzu zabalenean eta antigoalekoan, hau da, gaur egun marroia esango genukeena. Polita bidea, txakolina zaingorritik etortzea... Ea filologoren batek hartu eta ikertzen duen. Polita bai, polita. Beno, ez dakit ezer argitu dizudan...



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.